

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/115/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, alokairu- eta mailegu-eskubideei eta egile-eskubideekin lotutako beste eskubide batzuei buruzkoa, jabego intelektualaren baitan.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Directiva 2006/115/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, sobre derechos de alquiler y préstamo y otros derechos afines a los derechos de autor en el ámbito de la propiedad intelectual*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 376/28 de 27/12/2006)

2006/115/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko abenduaren 12koa

Alokairu- eta mailegu-eskubideei eta egile-eskubideei lotutako beste eskubide batzuei buruzkoa, jabego intelektualaren baitan.

(Bertsio kodetua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, bereziki 47. artikuluko 2. paragrafoa, eta 55. eta 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraituta ⁽¹⁾

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

- (1) Sarritan eta nabarmen aldatua izan da⁽²⁾ Kontseiluaren 92/100/EEE zuzentaraua⁽³⁾, 1992ko azaroaren 19koa, alokairuko eta maileguko eskubideei buruzkoa eta egile-eskubideei lotutako beste eskubide batzuei buruzkoa, jabego intelektualaren baitan. Arrazionaltasun eta argitasun handiagoa lortze aldera, zuzentaru hori kodetzea komeni da.
- (2) Egile-eskubideek eta horiei lotutako beste eskubide batzuek babestutako obrak eta objektuak alokatzea eta mailegatzea gero eta garrantzitsuagoa da; batez ere autore, artista interpretatzaile eta exekutatzaile, eta fonograma eta filmetako ekoizle eta egileentzat. Pirateria gero eta mehatxu handiagoa da.
- (3) Erkidegoko ekonomia eta kultura garatzeko, ezinbestekoa da behar bezala babestea egile-eskubideen xedeko obrak eta horiei lotutako eskubideek (alokairu- eta mailegu-eskubideek) babestutako objektuak. Horrez gain, egoki babestu behar dira esparru horretako eskubideek babesten dituzten objektuak,

¹ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko urriaren 12koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

² Ikusi I. eranskinaren A zatia.

³ E O, L 346, 1992.11.27koa, 61. or. Zuzentaru horren azken aldaketa Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2001/29/EE Zuzentaruaren egintzen (E O, L 167, 2001.06.22koa, 10. or.).

finkapenerako eskubidearen eta banaketako, irati-hedapenerako eta komunikazio publikoko eskubideen bitartez).

- (4) Egile-eskubideak eta horiei lotutako eskubideak babesteko, kontuan hartu behar da egungo errealitate ekonomikoa, eta horren baitan, besteak beste, aintzat hartu behar dira ustiapen-modu berriak.
- (5) Autoreek eta artista interpretatzaile edo exekutatzaileek sorkuntzaren eta artearen esparruan egiten duten esfortzuak behar besteko diru-sarrerak izatea eskatzen du, sorkuntza- eta arte-lan gehiagoren oinarri izan daitezten. Ildo horretatik, fonogramak eta filmak ekoizteko behar diren inbertsioak bereziki handiak eta ausazkoak dira. Eskubideen jabeen babes juridiko egokia emanda bakarrik lor daiteke diru-sarrera horiek bermatzea eta inbertsioak amortizatzea.
- (6) Hein handi batean, soldatarik gabeko langileek egiten dituzte sormen-, arte- eta enpresa-lan horiek. Horrenbestez, Europako Erkidegoak lagundu egin beharko luke langile horien jarduera, harmonizatutako babes juridikoa emanaz. Jarduera horiek zerbitzuen alorrekoak direnez gehien bat, lagundu egin behar dira Erkidegoko marko juridiko bateratu batekin.
- (7) Elkarrengana hurbildu behar dira estatu kideen legeak, indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera, azken horietan oinarritzen baitira estatu kide askoren autore-eskubideak eta horiei lotutako beste eskubide batzuk.
- (8) Alokairu- eta mailegu-eskubideei eta egile-eskubideei lotutako eskubideei buruz Erkidegoak duen marko juridikoa zenbait xedapen ezartzera muga daiteke, estatu kideek eskubideak ezar ditzaten titular-kategoria batzuentzat. Horrez gain finkatzeko, banaketarako, irati-hedapenerako eta komunikazio publikorako eskubideak ezar ditzakete, egile-eskubideekin lotutako eskubideen titular-taldeentzat.
- (9) «Alokairu» eta «mailegu» kontzeptuak zuzentaru honetan zer esanahi izango duten zehaztu behar da.
- (10) Argitasunaren mesedetan, komeni da,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zuzentarau honen ondorioetarako, alokairu eta mailegu kontzeptuetatik kanpo uztea obrak publikoaren eskura jartzeko modu jakin batzuk; esate baterako, fonograma eta pelikulak eremu publikoetan eta irratan argitaratzea, emanaldietan eskaintzea, eta *in situ* kontsultak egiteko eskuragarri jartzea. Zuzentarau honen baitan, ez dira mailegutzat hartuko publikoari irekita dauden erakundearen arteko maileguak.

- (11) Zuzentarau honen arabera, ez da egongo onura ekonomiko edo komertzial zuzenik ez zeharkakorik, baldin eta publikoari irekita dagoen erakunde batek, objektu bat mailegatzen duenean, erakundearen funtzionamendua ziurtatzeko adina diru bakarrik jasotzen badu.
- (12) Beharrezkoa da araubide bat ezartzea, autore eta artista interpretatzaile eta exekutatzaileek bidezko ordainsaria ziurtatuta izan dezaten. Autoreek eta artistek eskubide horien administrazioa beren ordezkari diren kudeaketa-erakundearen esku utzi ahal izango dute.
- (13) Aipatutako ordainsaria epe batean edo gehiagotan ordain daiteke, kontratua sinatzean edo gerora. Bat etorri behar dute ordainsariek eta autore eta artista interpretatzaile eta exekutatzaileek fonogramari eta pelikulari egindako ekarpenak.
- (14) Bestalde, mailegu publikoen kasuan, beharrezkoa da, gutxienez, araubide espezifiko baten bidez babestea egileen eskubideak. Dena den, mailegu publikoaren eskubide eskusiboa salbuesteko edozein neurrik zehatz jarraitu behar du Europako Erkidegoko legedia, bereziki tratatuaren 12. artikulua.
- (15) Zuzentarau honek egile-eskubideei lotutako eskubideei buruz arautzen dituen alderdiek ez dute eragotzi behar eskubide eskusibo horietara zabaltzea zuzentarau honek filmen produkzio-kontratueterako ezartzen duen presuntzioa. Kontratu horiek banakakoak edo kolektiboak izan daitezke, film-ekoizle baten eta artista-interpretatzaileen edo obra-exekutatzaileen artean. Era berean, ez du arazo izan behar zuzentarau honek aurreikusitako artista interpretatzaile edo exekutatzaileek edo obra-exekutatzaileek obrak ustiatzeko baimenaren presuntzioa dutela uste izateko; betiere, presuntzio hori bateragarria bada «Erromako Konbentzioarekin»; hau da, artista interpretatzaile edo exekutatzaileak, fonograma-ekoizleak eta irrati-hedapenerako erakundeak babesteko egin den nazioarteko konbentzioarekin.
- (16) Estatu kideek ahalmena izan behar dute zuzentarau honek irrati-hedapenerako aurreikusten duena baino babes handiagoa emateko egile-eskubideei lotutako eskubideen titularrei.

- (17) Harmonizatutako alokairu- eta mailegu-eskubideak ezartzerakoan, eta egile-eskubideei lotutako eskubideak bateratuki babestekoan, ez da ezkutuko murrizketarik egin behar estatu kideen arteko salerosketan; halaber, ez da urratu behar komunikabideen ustiapenerako araua, *Cinéthèque SA eta beste batzuk versus FNCF*⁽¹⁾ epaian emana.
- (18) Zuzentarau honek ez die eragin behar estatu kideek zuzentarauak barne-zuzenbidean txertatzeko epeei buruz dituzten betebeharrak; betebeharrak I. eranskineko B zatian daude jasota.

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

I. KAPITULUA

ALOKAIRU ETA MAILEGU ESKUBIDEA

1. artikulua

Harmonizazioaren xedea

1. Kapitulu honek araututakoari jarraiki, eta 6. artikuluan adierazitako salbuespenak aintzat hartuta, estatu kideek eskubidea izango dute egile-eskubideak dituzten obren jatorrizko aleen eta kopien eta 3. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako beste objektu batzuen alokairua eta mailegua baimentzeko nahiz debekatzeko.

2. Lehenengo paragrafoan jasotako eskubideak ez dira iraugiko, nahiz eta egile-eskubideek babestutako obren eta 3. artikuluko 1. paragrafoan jasotako beste objektuen jatorrizkoak edo kopiak saldu edo beste nolabait zabaldu.

2. artikulua.

Definizioak

1. Hona hemen zenbait definizio zuzentarau honen ondorioetarako:

- a) objektuak «alokatzea»: objektuak inoren eskura jartzea, denbora mugatuz erabil ditzan, eta trukean, zeharkako edo zuzeneko onura ekonomiko edo komertziala jasotzea.
- b) objektuak «mailegatzea»: objektuak inoren eskura jartzea, denbora mugatuz erabil dezan, eta trukean, zeharkako edo zuzeneko onura ekonomiko edo komertzialik ez jasotzea; baldin eta mailegatzea publikoari irekita dauden erakundeek egiten badute.
- c) «filma»: obra zinematografikoa edo ikus-entzunezkoa edo irudi mugikorrek; soinuaz lagunduta edo gabe.

¹ 60/84 eta 61/84 kasu metatuak, 1985 bilduma, 2 605 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Obra zinematografikoaren edo ikus-entzunezkoaren zuzendari nagusia hartuko da «egile edo egilekidetzat». Estatu kideek egilekide izaera eman diezaiekete beste pertsona batzuei.

3. artikulua.

Alokairu- eta mailegu-eskubidearen titularrak eta objektua.

1. Alokairu- eta mailegu-eskubidea baimentzeko edo debekatzeko eskubidea hauek dute:
 - a) autoreak, bere jatorrizko obrekiko eta horien kopiekiko;
 - b) interpretatzaileak edo exekutatzaileak, bere emanaldien finkapenekiko;
 - c) fonograma-ekoizleak, bere fonogramekiko;
 - d) film baten lehengo finkapenaren ekoizleak, jatorrizkoarekiko eta horren kopiekiko;
2. Ez dira zuzentarau honetan sartuko eraikuntzen eta arte aplikatuko obren alokairu- eta mailegu-eskubideak.
3. Lehenengo paragrafoan aipatutako eskubideak eskualdatu, laga edo kontratuzko lizentzien bidez eman daitezke.
4. seigarren paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, artista interpretatzaile edo exekutatzaileek film-ekoizle batekin filmen ekoizpenari buruzko kontratuak egiten dituztenean —banaka edo taldean—, beren alokairu-eskubideak eskualdatu dituztela ulertuko da, salbu eta kontratuan besterik zehazten bada edo 5. artikuluan xedatutako betetzen bada.
5. Estatu kideek 4. paragrafoaren antzeko presuntzio bat ezar dezakete autoreekiko.

6. Estatu kideek erabaki dezakete artista interpretatzaile edo exekutatzaileen eta pelikula ekoizleen artean film bat ekoizteko kontratua sinatzeak alokairua baimentzeko indarra izatea. Hori horrela izango da, baldin eta pelikula ekoizteko kontratu horrek bidezko ordainsaria ezartzen badu (5. artikuluan araututakoari jarraiki). Era berean, estatu kideek erabaki dezakete paragrafo hau, *mutatis mutandis*, II. kapituluko eskubideei aplikatzea.

4. artikulua.

Ordenagailu-programen alokairua

Zuzentarau honek araututakoa betetzekoa izango bada ere, bete egin beharko da, halaber, Kontseiluaren 1991eko maiatzaren 14ko 91/250/EEE zuzentarauak, ordenagailu-programak babesteari buruzkoak, 4. artikuluko c) idatz-zatian arautzen

duena⁽¹⁾.

5. artikulua

Bidezko ordainsarirako eskubide ukaezina.

1. Autoreek eta artista interpretatzaile edo exekutatzaileek mantendu egingo dute alokairuaren trukean bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea; nahiz eta fonogramaren edo jatorrizko pelikularen edo horren kopien alokairu-eskubideak fonograma- edo pelikula-ekoizleari eman.
2. Autoreek edo artista interpretatzaile edo exekutatzaileek ezingo diote uko egin bidezko ordainsarirako eskubideari, alokairuaren truke.
3. Autoreak edo artista interpretatzaile edo exekutatzaileak ordezkaten dituzten kudeaketa-erakundeek kudea dezakete bidezko ordainsarirako eskubidea.
4. Estatu kideek erabaki dezakete erabat edo zati batean derrigorrezkoa izatea kudeaketa-erakundeen bitartez kudeatzea bidezko ordainsarirako eskubidea. Halaber, erabaki dezakete zein pertsonari eska dakiokkeen edo zein pertsonarengandik jaso daitezkeen adierazitako ordainsariak.

6. artikulua.

Salbuespenak mailegu publikorako eskubide eskusiboari

1. Estatu kideek salbuespenak ezarri ahal izango dizkiete 1. artikuluan aipatutako eskubide eskusiboari; baldin eta autoreek gutxienez ordainsari bat jasotzen badute mailegu publikoaren truke. Estatu kideek ordainsaria libreki zehatz dezakete, kultura sustatzeko ezar ditzaten helburuen arabera.
2. Estatu kideek erabakitzen badute 1. artikuluan araututako mailegu-eskubide eskusiboak ez ezartzea fonograma, film eta ordenagailu-programei, ordainsari bat ezarri beharko dute, gutxienez autoreentzat.
3. Estatu kideek erabaki dezakete establezimendu-kategoria batzuk salbuestea, eta horrenbestez, 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen diren ordainsariak ez ordainaraztea kategoria horiei.

II. KAPITULUA

EGILE-ESKUBIDEEI LOTUTAKO ESKUBIDEAK

7. artikulua

Finkatze-eskubidea

¹ E O, L 122, 1991.5.17koa, 42. or. Zuzentarau hau 93/98/EEE Zuzentaruaren aldatu zen (E O, L 290, 1993.11.24koa, 9. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatu kideek eskubide eskusiboa emango diete artista interpretatzaile edo exekutatzaileei, haien emanaldien finkapena baimentzeko edo debekatzeko.

2. Estatu kideek eskubide eskusiboa emango diete irrati-hedapenerako erakundeei, haien emanaldien finkapena baimentzeko edo debekatzeko; bai hari bidezko emanaldietan, bai eta hari gabekoetan ere, kablea eta satelitea barne.

3. Kable bidezko hedapena eskaintzen duten enpresek ez dute 2. paragrafoan zehaztutako eskubiderik izango, baldin eta irrati-hedapenerako erakundeen saioak bakarrik ematen badituzte.

8. artikulua.

Irrati-hedapena eta komunikazio publikoa

1. Estatu kideek eskubide eskusiboa emango diete artista interpretatzaile edo exekutatzaileei, beren emanaldien haririk gabeko emisioak eta beren komunikazio publikoak baimendu edo debekatzeko. Hori horrela izango da, baldin eta emanaldia bera ez bada, berez, irrati transmititutako emanaldi bat edo obraren finkapen batetik egindako transmisioa.

2. Estatu kideek arautuko dute fonograma-erabiltzaileek bidezko ordainsaria ematea artista interpretatzaile edo exekutatzaileei eta fonograma-ekoizleei; baldin eta helburu komertzialekin argitaratutako fonograma hori (edo fonograma horren erreproduzio bat) hari gabeko irrati-hedapenaren bidez aireeratzen edo publikoarekiko edozein komunikaziotarako erabiltzen bada. Artista interpretatzaileak edo exekutatzaileak ez badira ekoizleekin ados jartzen, estatu kideek beraiek ezar ditzakete ordainsari hori banatzeko irizpideak.

3. Estatu kideek baimentzeko edo ukatzeko eskubide eskusiboa emango diete irrati-hedapenerako erakundeei beren hari gabeko emanaldiak berriz eman edota beren saioak publikoki eman nahi direnean; azken kasu horretan, baldin eta emanaldi hori publikoaren eskura dauden lekuetan egiten bada, trukean sarrera ordainduta.

9. artikulua.

Banaketarako eskubidea

1. Estatu kideek eskubide eskusiboa emango diete egileei publikoaren esku jartzeko, salduta edo beste modu batez, a), b), c) eta d) idatz-zatietan adierazitako objektuak eta horien kopiak; eskubide horri «banaketarako eskubidea» deituko zaio aurrerantzean.

- a) artista interpretatzaile edo exekutatzaileei, beren emanaldien finkapenekiko;
- b) fonograma-ekoizleei, beren fonogrametikiko;
- c) filmen lehen finkapenen ekoizleei, beren filmetikiko eta horien kopietatikiko;

d) irrati-hedapenerako erakundeei, beren emanaldien finkapenekiko (7. artikuluko 2. paragrafoan definitu bezala ulertuta).

2. Erkidegoaren barruan, ez da agortuko 1. paragrafoan jasotako objektuak banatzeko eskubidea, salbu eta titularrak objektu hori lehen aldiz Erkidegoan saltzen bada, edo salmenta hori titularraren baimenarekin egiten bada.

3. Banaketarako eskubidea erabiltzeko, bete egin behar dira I. kapituluaren jasotako berariazko xedapenak, bereziki 1. artikuluko 2. paragrafoak.

4. Banaketarako eskubidea besterendu eta laga egin daiteke, eta, horrez gain, kontratu-lizentzien emakiden xede izan daiteke.

10. artikulua.

Eskubideen mugak

1. Kapitulu honetan jasotako eskubideei mugak jar diezazkiekete estatu kideek:

- a) erabilera helburu pribatuatarako denean;
- b) pasarte motzak erabiltzen direnean, gaurkotasan handiko gertakariei buruz informazioa emateko;
- c) irrati-hedapenerako erakundeek finkatze labor eta iragankorrak egin behar dituztenean, beren baliabide teknikoekin eta beren emanaldietarako;
- d) soilik irakaskuntzarako eta ikerketa zientifikorako erabiltzen direnean.

2. Artista interpretatzaile edo exekutatzaileen, fonograma-ekoizleen, irrati-hedapenerako erakundeen eta lehen grabazioko filmak ekoizten dituztenen eskubideak babesteko araupenari mugak jar diezazkiekete estatu kideek. Muga horiek literatura-lanen eta artelanen egile-eskubideei jarritako mugen antzekoak izango dira. Nolanahi ere, bete egin behar da 1. paragrafoan jaso.

Bestalde, Erromako Konbentzioarekin bateragarriak diren derrigorrezko lizentziak bakarrik ezar daitezke.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan jasotako mugak kasu berezietan bakarrik ezarriko dira; hau da, ez dionean prestazioaren ustiapen normalari eragiten, eta ez dienean eskubidearen titularrak dituen interes legitimoek bidegabeki kalterik egiten.

III. KAPITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

11. artikulua.

Denborazko aplikazio-eremua

1. Zuzentarau honetan jasotako fonogramei, egile-eskubideek babestutako lanei, emanaldiei, saioei eta lehen grabazioko filmi ezarriko zaizkie zuzentarau

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

honetan jasotako xedapenak; baldin eta bi baldintza hauetakoren bat betetzen badute: 1994ko uztailaren 1ean babestuta egotea, estatu kideek egile-eskubideei eta horiei lotutako eskubideen gaineko legearen baitan, edo lege honek babesari lortzeko eskatzen dituen baldintzak bete izana, garai horretan.

2. Zuzentarau honetan araututakoa betetzeko, ez dira kontuan hartuko 1994ko uztailaren 1a baino lehenago egindako ustiapen-ekintzak.

3. Estatu kideek erabaki dezakete mailegatutzat edo alokatutzat ematea objektu bat (3. artikuluko 1. paragrafoko a), b), c) eta d) idatz-zatietan jasoa); baldin eta titularrek, helburu horrekin, hirugarren baten eskura jartzen badute objektua, edo objektu hori 1994ko uztailaren 1a baino lehen eskuratua izan bazen.

Dena den, estatu kideek erabaki dezakete titularrek ordainsari egoki bat jasotzea, grabazio digitalak mailegatu edo alokatzen dituztenean.

4. 1994ko uztailaren 1a baino lehen sortutako obra zinematografiko edo ikus-entzunezkoen kasuan, estatu kideek ez dute 2. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatu beharrik izango.

5. Hirugarren. paragrafoan araututakoa betetzeko bada ere, zuzentarau honek ez die eragingo 1992ko azaroaren 19a baino lehen adostutako kontratuei, 7. paragrafoan araututakoa salbu.

6. Estatu kideek erabaki dezakete onartzea, 7. paragrafoan xedatutakoa salbuetsita, titularrek beren eskubide eskusibo berriak transferituztat jo dituztela; baldin eta titular horiek eskubide berriak lortu badituzte zuzentarau hau aplikatu zaion nazio-araudiari esker eta ustiatzeko baimena 1994ko uztailaren 1a baino lehen eman bazuten.

7. 1994ko uztailaren 1a baino lehen egindako kontratua duten autore eta artista interpretatzaile edo exekututzaileek eskubidea izango dute, 5 artikuluko araututakoari jarraiki, bidezko ordainsaria jasotzeko; betiere, haiek edo haien ordezkariak horretarako eskaera egin badute, 1997ko urtarrilaren 1a baino lehen. Titularrek ez badute ordainsariei buruzko adostasunik lortzen, bidezko ordainsariak finka ditzakete estatu kideek.

12. artikulua.

Egile-eskubideen eta horiei lotutako eskubideen arteko harremana

Zuzentarau honen bidez egile-eskubidei lotutako eskubideak babestek ez dio eragingo egile-eskubideen babesari.

13. artikulua.

Komunikazioa

Estatu kideek Batzordeari jakinarazi behar diote zein barne-zuzenbideko zein xedapen eman dituzten

zuzentarau honek araututako eremuan.

14. artikulua.

Indargabetzea

92/100/EEE Zuzentaraua indargabetuta geratzen da; nolana ere, estatu kideek bete egin behar dituzte I. eranskinen B zatian adierazten diren epeak zuzentzarauen transposizioa egiteko barne-zuzenbidera.

Indargabeturiko zuzentzaruari egindako erreferentziak zuzentzarau honi eginak direla ulertuko da, eta II. eranskinen taularen arabera irakurriko dira.

15. artikulua.

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera sartuko da indarrean zuzentzarau hau.

16. artikulua.

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentzarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean *Presidentea*
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
M. PEKKARINEN